

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

1225

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 5koa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen laugarren zerrenda osagarria argitaratzen duena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako, eta dagozkien lan-kontratuak formalizatzeko epea ezartzen duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduak (2022ko abenduaren 29ko EHAA), enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako oinarriak onartu zituen, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Agindu horren bidez, hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuko langile finko izateko egonkortzeko salbuespenezko prozesu hauetarako deialdia egin zen:

- Sukaldaritzako kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Garbiketako langileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko martxoaren 12ko Ebazpenak prozesu horietan hautatutako pertsonen eta esleituko diren plazen behin betiko zerrenda argitaratu zuen eta, era berean, hogeitau egun balioduneko epea ezarri zuen Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2. oinarrian adierazitako parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

Behin dokumentazioa aurkezteko epea amaituta eta hura aztertuta, oinarri orokorren 12. apartatuan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko ekainaren 30eko Ebazpenak argitara eman zuen eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkeztu zuten (aipatutako ebazpenaren I. eranskina) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen zerrenda, bai eta lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko azterketa medikoa, arrazoi justifikatuekin, egin gabe zuten pertsonen zerrenda ere (ebazpen horren II. eranskina).

Ondoren, 2025eko irailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen lehen zerrenda osagarria argitaratu zen, mediku-azterketa gainditu zutelako, eta, beraz, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituztelako eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatzeko epea ezarri zen.

2025eko urriaren 17ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria argitaratu zen, mediku-azterketa gainditu zutelako eta, beraz, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituztelako eta, era berean,

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatzeko epea ezarri zen.

2025eko azaroaren 21eko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen hirugarren zerrenda osagarria argitaratu zen, mediku-azterketa gainditu zutelako eta, beraz, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituztelako eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatzeko epea ezarri zen.

Aurreikusitako osasun-azterketan beste pertsona batzuk (aipatutako II. eranskinean ere sartuta daudenak) ebaluatu ondoren, orain argitara eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen laugarren zerrenda osagarria, lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo dituztelako.

Halaber, hutsak aurkitu ziren lehen aipatutako 2025eko ekainaren 30eko Ebazpenaren IV. eranskinean (eskubide guztiak galdu zituzten hautatuen zerrenda) eta V. eranskinean (ordezko gisa agertzen ziren hautatuen zerrenda, betekizunak egiaztatzerako deitu zirenak), eta 2025eko azaroaren 24ko Ebazpenaren bidez aldatu zen.

V. eranskinean zerrendatutako pertsonen dokumentazioa aurkezteko epea amaituta, oinarri orokorren 12. atalean xedatutakoaren arabera, argitara eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen zerrenda, laugarren zerrenda osagarrian sartuta, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkeztu dutelako eta lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko azterketa medikoa gainditu dutelako.

Era berean, argitaratu behar da V. eranskinean aipatutako eta uko egin duten edo eskubideak galdu dituzten pertsonak, eta puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutzat jotako pertsonak ordezko gisa agertuko direnak.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako izangaien laugarren zerrenda osagarria, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatzeko epea ezartzea. Pertsonen zerrenda hori I. eranskinean dago.

Bigarrena.– Hautatutako pertsonen (I. eranskinean zerrendatuta daude) ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera sinatu beharko dituzte dagozkien lan-kontratuak.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-kontratuak sinatzen ez duenak galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratorzen direnak.

Hirugarrena.– Arrazoi justifikatuengatik aipatutako Aginduaren 11.4 oinarrian aurreikusitako azterketa medikoan ebaluatu ezin izan diren pertsona hautatuen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuen formalizazioa atzeratzea, eta

2026ko martxoaren 20a, ostirala

kontratu horiek formalizatzeko baldintza izango da azterketa mediko horretan gai izatea. Ebazpen honen II. eranskinean daude zerrendatuta pertsona horiek.

Laugarrena.– III. eranskinean argitaratzea hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egin dieten edo eskubide horiek galdu dituzten hautatuen zerrenda.

Bosgarrena.– Ordezkoen zerrendan ageri den puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria argitaratzea, eta Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutzat jotzea, esleitutako lanpostua adierazita. Ebazpen honen IV. eranskinean daude zerrendatuta.

Seigarrena.– Hamar egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpen honen IV. eranskinean ageri diren izangai hautatuek parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzaten. Baldintza horiek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2 oinarrian daude adierazita.

Dokumentazioa hemen aurkeztuko da: Hezigunea (<https://hezigunea.euskadi.eus>) («Erabil-tzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Langileen eremua» – «Izapideak langileen eremuarekin» – «Tramitagune- Administrazio-espeditenteak» – «Ireki espeditente berria» – «Gainerako izapideak».– Gaia dioen lekuan, haxe jarri behar da: «EPE 2022. Sukaldea eta Garbiketa. Dokumentazioa entregatzea».

Ebazpen honen V. eranskinean, zinpeko adierazpenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak entregatzeko» eredia ere. Eredu hori ere bete, eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko da.

Zazpigarrena.– Aipatutako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez dituztenek, edo agiri horiek aztertuta ikusten bada deialdiaren 2. oinarrian eskatutako baldintza- ren bat ez dutela betetzen, edo dagozkien zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko edo psikikoa ez dutela, ezin izango dute lan kontratuko langile finko bihurtu, eta beren jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, horrek ezertan galarazi gabe eskaera faltsutzeagatik erantzukizuna eskatzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 5a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.

I. ERANSKINA

Kategoria: sukaldea.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***7339**	Gámez Castro, Natividad	3461/17 Laudio/Llodio: CEIP Latorro HLHI
***7915**	Fernández Moraza, María Carmen	3461/139 Berriz: CEIP Learreta-Markina HLHI
***3305**	Prieto Caballero, Josu	3461/227 Sopelana: CEIP Zipiriñe HLHI
***5654**	Yarritu Unanue, Miren Agurtzane	3461/217 Portugalete: CEIP Kanpazar HLHI
***5969**	Rivacoba Arechabala, Maria Jesús	3461/116 Abanto Zierbena: CEIP Mtro. Askartza Isusi HLHI
***6215**	Álvarez Sainz, Naiara	3461/86 Oiartzun: CEIP Elizalde HLHI

Kategoria: garbiketako langileak.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***9002**	Laboa Souto, María Cristina	3460/98 Irun: IES Plaiaundi BHI
***1700**	Valderas Torres, Ana María	3460/252 Portugalete: IES Ballonti BHI
***3072**	Kabor Zenzan, Zakaria	3460/235 Getxo: IES Julio Caro Baroja BHI
***3625**	Vázquez Andrade, Raquel	3460/183 Bilbao: IES Eskurtze BHI
***8369**	Valiente Durán, M. Julia	3460/242 Leioa: IES Artaza-Romo BHI

Kategoria: garbiketako langileak.

Txanda: desgaitasuna.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***9044**	Ruiz Llagas, Carmen	3460/107 Oñati: IES Oñati BHI

II. ERANSKINA

Kategoria: sukaldea.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***5339**	Urtizberea Hernández, Maria Beatriz	3461/506 Ormaiztegi: CEIP San Andrés HLHI (75%)

2026ko martxoaren 20a, ostirala

III. ERANSKINA

Kategoria: sukaldea.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***3158**	Arocena Beldarrain, M. Teresa	3461/517 Ondarroa: CEIP Zaldupe HLHI (%75)

Kategoria: Garbiketako langileak.

Txanda: Librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***6791**	Vicente Hernández, Carmen María	3460/32 Vitoria-Gasteiz: CIFP Mendizabala LHII
***6795**	Uribe-Echeverria Irañeta, Maria Esther	3460/26 Vitoria-Gasteiz: IES Francisco de Vitoria BHI
***6094**	Villar Rodal, Maria Ángeles	3460/246 Mungia: IES Mungia BHI
***5374**	Lahuerta Mendoza, Maria Pilar	3460/132 Arrasate/Mondragón: IES Arrasate BHI
***3130**	Herrero Prieto, Jacinta	3460/119 Usurbil: CIFP Usurbil LHII

IV. ERANSKINA

Kategoria: sukaldea.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***3622**	Orozco Tejedor, Maria Ibone	3461/517 Ondarroa: CEIP Zaldupe HLHI (%75)

Kategoria: garbiketako langileak.

Txanda: librea.

NAN	Abizenak eta izena	Plaza
***3362**	Velasco Arranz, M ^a Luz	3460/246 Mungia: IES Mungia BHI
***5309**	Aguinaco Vila, Argoitz	3460/132 Arrasate/Mondragón: IES Arrasate BHI
***8053**	Ordoño Larrea, Amaia	3460/26 Vitoria-Gasteiz: IES Francisco de Vitoria BHI
***9364**	Latasa Lucas, Elisa Maria	3460/32 Vitoria-Gasteiz: CIFP Mendizabala LHII
***8040**	Aguilera Estevez, M ^a Carmen	3460/119 Usurbil: CIFP Usurbil LHII

2026ko martxoaren 20a, ostirala

2022KO EPE. EGONKORTZEKO SALBUESPENZKO PROZESUA (SUKALDEA ETA GARBIKETA)

ZINPEKO AITORPENA

Nik.....

NAN zk.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT edozein administrazio publikoren edo atunomia-erkidegoetako konstituzio- eta estatuto-organoen diziiplina-espediente bidez zerbitzutik kentzeko zehapena jaso ez izana, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikorako desgaiuntza absolutua edo berezia jaso ez izana.

....., 2026ko.....-k.....

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN zk.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT zinaren edo promesaren azpian desgaiuntza-egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta(e)an (estatuaren izena) enplegu publikora iristea eragozten didan diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, baldintza berberetan.

....., 2026ko.....-k.....

Izpta.: